



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/11/17

Bizkaiko umeek Bizkaiko Batzar Nagusietan parte hartzeko eskubidea gauzatu dabe, Unicefen eskutik

Gernikako Batzarretxeak umeen osoko monografikoa jaso dau bere historian lehen aldiz bariku honetan, Bizkaiko Batzar Nagusiek antolatuta, Unicefegaz alkarlanean. Saioa proba pilotu moduan planteau da, hemendik aurrera edizino gehiago jaso ahal izateko. Zemendiaren 20an ospatuko dan Umeen Eskubideen Egun Unibersalaren bezperatan egin dan eta sinbolismoz beteta egon dan ekitaldira 12 eta 14 urte arteko 200 ume joan dira, Bizkaiko ume guztiak ordeztuz. Umeek, euren errebindikazioak batzen ebazan dekalogoak irakurri dabe.

Umearen eskubideen Konbentzinoan jasoten dan moduan, Partaidetzarako daukien eskubidea erabili dabe Gernikan, osokoen aretoan egin dan ez ohiko batzarrean ordezkari politikoakaz konpartidu daben adierazpen publikoaren bitartez. Testuaren gaineko gogoetarako eta ondorengo adostasunerako prozesuan (ikusi erantsitako dokumentua), Bizkaiko ikastetxeetako mila ikasle baino gehiagok hartu dabe parte.

Umeek, euren eskubideak bermatzeko “ahalik eta ahalegin handiena egiteko” eskatu deutsee Bizkaiko Batzarretako kideei, eta “erabagiak hartu behar dituenen, umeentzat ona dana gogoan izan daiela. Geu gara Bizkaiaaren etorkizuna, eta eskatzen deusueguna ez da bakarrik guri entzutea edo babestea, maitatzea, ulertzea eta gure eskubideak bermatzea. Gehiago gura dogu, hori dana egiten irakastea eskatzen deusuegu, nagusiak garanean Bizkaia hobea egiten jakin daigun”, adierazo dabe.

Osoko hunkigarriaren burua Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea izan da, Isidro Elezgarai Unicefeko Euskadiko Presidenteak, Mahaiko kideek eta Bizkaiko Batzarretako Gizarte Ekintzako Batzordeko talde guztietako ordezkariak lagunduta. Foru Gobernua ordeztuz Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako diputatua egon da ekitaldian.

Umeen Eskubideen Egun Unibersala ospatzeko hiru egun falta diranean, Batzarretako presidentek Adierazpen Instituzionala irakurri dau, Batzarretako talde guztiakaz adostutakoa (ikusi erantsitako testua). Bertan, Bizkaiko Batzar Nagusiek “euren konpromisoa erakusten dabe umeen eta nerabeen eskubideak defendiduteko eta autortzeko”. Beste gauza batzuen artean, Bizkaiko Batzarren eretxiz “ezinbestekoa da erakundeetako maila guztiek eta politika, gizarte eta ekonomia arloetako eragileek parte hartzea zaurgarritasun berezia daukan talde horren bizitza hobetzeko”.

Ekitaldiari hasiera emoteko, Agurra, eta gero taldearen argazkia egin da Gernikako Arbolaren azpian. Batzarretan jesarri ostean, 10 ume Umeen Adierazpena irakurri dabe eta, ostean, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentek gauza bera egin dau Adierazpen Instituzionalagaz, Virginia Imaz “clown”-ak jardunaldiaren ondorioen barri emon eta gero. Ekitaldi sinbolikoari amaierara emoteko, umeek Batzarretzeko Ohorezko Liburuan sinatu dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
17/11/2017

La infancia vizcaína abraza su derecho a la participación en las Juntas Generales de Bizkaia de la mano de Unicef

La Casa de Juntas de Gernika ha acogido este viernes, por primera vez en su historia, un pleno monográfico sobre la infancia organizado por las Juntas Generales de Bizkaia en colaboración con Unicef, una sesión que se ha convertido en una prueba piloto de cara a acoger en el futuro nuevas ediciones. Al acto, cargado de simbolismo en vísperas del Día Universal de los Derechos de la Infancia -20 de noviembre- han acudido unos 200 chavales de entre 12 y 14 años en representación de todos los niños y niñas de Bizkaia quienes han leído un decálogo con sus reivindicaciones.

Como se recoge en la Convención sobre los derechos del niño/a, han hecho uso en Gernika de su derecho a la Participación a través de una declaración pública que han compartido con los representantes políticos en una junta extraordinaria celebrada en el salón de plenos. En la reflexión y posterior consenso del texto (ver documento adjunto) han participado más de un millar de alumnos y alumnas de distintos centros de enseñanza vizcaínos.

Los niños y niñas han pedido a los representantes del legislativo vizcaíno “que se esfuercen al máximo” para garantizar sus derechos, y “que decidan pensando en lo que es mejor para la infancia. Somos el futuro de Bizkaia, y no sólo queremos que nos escuchen, nos protejan, nos quieran, nos comprendan y que garanticen nuestros derechos, sino que también les pedimos que nos enseñen a hacerlo para que cuando seamos mayores consigamos hacer una Bizkaia mejor”, han declarado.

El emotivo pleno ha sido presidido por la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, quien ha estado acompañada por el presidente de Unicef en el País Vasco, Isidro Elezgarai, miembros de la Mesa y representantes de todos los grupos junteros de la Comisión de Acción Social de la Cámara vizcaína. Asimismo, ha acudido al acto en representación del Gobierno foral la diputada de Acción Social, Isabel Sánchez Robles.

A tres días de celebrarse el Día Universal de los Derechos de la Infancia, la presidenta de la Cámara ha aprovechado el momento para leer una Declaración Institucional, consensuada con todos los grupos junteros (ver texto adjunto), en la cual las Juntas Generales de Bizkaia “se comprometen en la defensa y reconocimiento de los derechos de la infancia y adolescencia”. Entre otras cosas, el parlamento vizcaíno cree “imprescindible involucrar a todos los niveles institucionales y agentes políticos, sociales y económicos para mejorar la vida de este colectivo especialmente vulnerable.”

El acto ha comenzado con un “agurra” y una foto de grupo junto al Árbol de Gernika. Tras tomar asiento en el hemiciclo, 10 menores han hecho lectura de la Declaración infantil y, posteriormente, la presidenta de Juntas Generales, Ana Otadui, ha hecho lo propio con la Declaración Institucional, después de escuchar las conclusiones de la jornada por parte de la “clown” Virginia Imaz. El simbólico acto ha concluido con la firma de los menores en el Libro de Honor de la Casa de Juntas.